





## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

**Baliabide fisikoak:** Guk diseinatu eta sortutako arropa saltzeko lokal bat Tolosan (Izarok baliatutakoa), gure produktuak entregatzeko furgoneta (Aiorak jarriko duena), webgunea aurrera eramateko ordenagailu komun bat (gehienbat Aiorak erabiliko duena), arropa sortu eta diseinatzeko makina beharrezkoak eta baita plastikoa biltzeko makinak sortzeko makineria eta tresneria ere.



**Giza baliabide eta baliabide intelektualak:** Asierrek bere sormena eta irudi ezberdinak diseinatzeko ahalmena erabiliko du diseinu erakargarri eta paregabeak egiteko. Bestalde, Izaro matematiketan trebea denez, enpresako diru kontuak eramango ditu. Ander, aldiz, robotikan eta makinerian iaioa da eta zenbait makina txiki egin dituzenez jada, bere esperientzia erabiliko du plastikozko botilak jasotzeko makina automatikoak egiterakoan. Azkenik, Aiora saltzailea izango da, bezeroekin harremanetan jartzeko trebetasuna duelako eta jada, baita zenbait ezagun gure proiektuan interesatuak daudenak. Gainera, Aiorak informatikako ikastaro bat egin duenez, bera arduratuko da webgunea diseinatu eta aurrera eramateaz.



**Finantza-baliabideak:** Enpresa sortzeko, bakoitzak 3.000€ jarriko ditugu hasieran, beharrezko materiala eta makineria erosi ahal izateko. Bestalde, diru-laguntzak eskaintzen dituzten zenbait talderekin harremanetan jarriko gara (lehen aipatutakoak), gure proiektua azaldu eta gure kapitala handitu ahal izateko. Finantziarioa handiagoa izateko, zenbait enpresekin kolaboratu eta publizitatea egingo diegu.